

#### 4.FUNTSEZKO ELKARTEAK

Aipatu dugun bezala, kultura-aniztasunaren bila dabilzan familiengana joko dugu. Honek esan nahi du guk ez daukagula familien inguruko inolakoak informaziorik, ezta zein egoera ekonomikotan dauden ere. Horregatik uste dugu, gure eremuak eremu publikoa izan behar duela.

Bestalde, finantziario bat beharko dugu. Horregatik, hainbat enpresatako informazioa bilatu ondoren eta enpresa horiek gure ideologiarekin bat egiten dutenez, beraiekin lan egitea erabaki dugu.

	Enpresetako datuak.	Arrazoi hauengatik eskatzen diegu laguntza:
<p><b>Ibaizabal Ikastola eta Kurutziaga ikastola.</b></p>	<p>Hezkuntza Proiektua ikastolaren bizitza gidatzen duen tresna da. Ikastolan egiten diren proiektu guztiek hezkuntza-proiektu honi erantzungo diote, eta bertatik elikatuko dira.</p> <p>Hezkuntza-proiektuan ondorengo ezaugarriek dute lehentasuna:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kurutziaga Ikastolaren Hezkuntza Proiektua propioa eta euskalduna da, eta euskal kultura eta euskara transmititzeko konpromisoa du sorreratik eta munduko gainontzeko kulturekiko irekia dago.</li> <li>• Eskola inklusiboaren alde egiten du, eta emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun iraunkorra sustatzeko konpromisoa du.</li> <li>• Gizarte bidezkoago eta ekologikoki iraunkorrago baten alde lan egiten du.</li> <li>• Ikastolak akonfesionaltzat du bere burua.</li> <li>• Modu autonomoan eta elkarlanaren bidez kudeatzen da, kooperatibaren estatutuak zehaztutako arau eta</li> </ul>	<p>Esparru horren ideologiak gure enpresarekin erabili nahi ditugun gai teorikoetan lagun diezagukete. Gainera, komunikazioa erraza izango da, ikastetxe honetako langileak ezagutzenditugulako.</p> <p>Gainera, hainbat ikastetxe desberdinekin lotura dute eta han gure proiektuaren inguruko informazioa eskainiko dugu. Honek, ikastetxeen bizipenei buruzko informazio desberdina emango digute.</p>

	<b>Enpresetako datuak.</b>	<b>Arrazoi hauengatik eskatzen diegu laguntza:</b>
	erabaki guneekin.	
<b>San agustin ( Kultur gunea)</b>	San Agustin Kultur Gunea Eszena Arte profesionalak hedatzeko gunea da (antzerkia, musika eta dantza). Programazio iraunkorra eskaintzen du, kultura-intereseko irizpideak erabiliz. Gainera, zenbaitetan, aretoa eta kultura-taldearen arteko ekoizpenaren bidez, besteetan berriz, taldearen proposamenak programazio egonkorrean txertatuz.	Museoen ezagutza hedatu egiten da, eta horrek, inkontzienteki museoek garrantzi gehiago hartzera ahalbidetuko du, gure helburu nagusia lortzeko, hau da, kultura-aniztasuna sustatzeko.

Egia da, Durango Autonomia Erkidegoko geografian estrategikoki kokatuta dagoela, eta langileriaren zati handi bat betetzen duen industria garrantzitsu bat du, batez ere, fundizio eta tresneriaren arloan. Durangok, Ibaizabal errekaaren goi eta erdi harana betetzen duen eskualde burua izanik, zerbitzu arloa oso garatua du, batez ere, merkataritza, zerbitzu publiko, garraio, banku eta aseguruiei dagokionez.

Uste dugu udaletxearekin momenturen baten harremanak izatea ona izan daitekeela, bai haurraren garapenerako, bai herriarentzako.

Laburbilduz, gure lehenengo aukerak Udala eta Ibaizabal Ikastola izango lirateke. Izan ere, eskola horretako kideak garenez, komunikazioa lehenengo pertsonan emango delako eta bilerak egin ahal izango ditugulako.